

I. eranskina. Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala

DEBA GARAIKO BEREONERATZE HIRIGINTZ SOZINETATEA SA (SURADESA) berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planean erakunde betearazle gisa jardungo du.

Illo horretan, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko orduan estandar altuenekin duen konpromisoa adierazi nahi du, bai eta integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzekin bat egiten duela ere, horrekin harremana duten eragile guztiek iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat har dezaten beren jarduerak, edozein modutan.

Bere zerbitzura dauden langileek, enplegatu publikoak diren aldetik, besteak beste, interes orokorrak zaintzeko konpromisoa dute, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez eta printzipio hauen arabera jokatzuz: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoan aritzea, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura- eta ingurumen-ingurunea sustatzea, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea (5/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena, 52. artikulua).

Politika horren helburua da erakundearen barruan kultura bat sustatzea, iruzurrezko jarduerak oro zapuztuko duena eta jarduerak horiek prebenitzea eta antzematea erraztuko duena, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak sustatuz.

Erakunde betearazle gisa bere gain hartutako eginkizunen artean sartzen da iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea, Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun-irizpideei jarraiki. Era berean, prozesuen arduradun eta kudeatzaileen lankidetzak du, bakoitzaren erantzukizun-arloaren barruan barne-kontrolko sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko behar den arreta bermatzeko.

Iruzurraren aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak abiaraziko dira, aurreko aldietan lortutako esperientzian eta iruzur-arriskuaren ebaluazioan oinarrituta.

Era berean, irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatuko ditu, jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez, eta betiere Agintaritzaren arduradunarekin, Kontrol Agintaritzarekin, Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin lankidetzan. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenarekin eta gai hori arautzen duten arauen arabera tratatuko dira.

Azken batean, kontrol-sistema bat ezarri da iruzurrak prebenitzeko eta, ahal den neurrian, antzemateko eta, halakorik gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.

Arrasaten, 2022ko abenduaren 22a